

**LANDA GARAPENENKO,
INGURUMENENKO ETA
TOKI ADMINISTRAZIOKO
DEPARTAMENTUAREN
I. HIZKUNTZA PLANA
(2019-2021)**

AURKIBIDEA

1.-SARRERA

- 1.1.- Funtsa
- 1.2.- Lege esparrua
- 1.3.- Datu demografiko eta soziolinguistikoak

2.- DIAGNOSTIKOA

- 2.1.- Abiapuntua
- 2.2.- Langileen euskara ezagutza
- 2.3.- Lehentasunezko unitate organikoen identifikazioa
- 2.4.- Komunikazio eta baliabideen azterketa

3.- MISIOA ETA HELBURUAK

- 3.1. - Misioa
- 3.2 - Helburuak
 - 3.2.1 Beharrezko hizkuntza nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan
 - 3.2.2 Euskarazko prestakuntza eskaintzea Departamentuko lehentasunezko unitate organikoei esleituriko langileei
 - 3.2.3 Beharrezko neurriak hartzea euskaraz artatuak izan nahi duten pertsonak hala izan daitezen
 - 3.2.4 Herritarrei ele biko informazio idatzia eskaintzea (digitala eta paperekoa)
 - 3.2.5 Errotulazioa eta informazio elementuak ele bitan, herritarrak artatzeko gune fisikoetan (bulegoak, harreraguneak...): hizkuntza paisaia
 - 3.2.6 Zerbitzu publikoak esleitzeko orduan, hizkuntza irizpideak ezartzea.

4.- ANTOLAMENDUA ETA JARRAIPENA

- 4.1.- Planaren antolaketa egitura
- 4.2.- Jarduketan balorazio ekonomikoa
- 4.3.- Ebaluazioa eta jarraipena

1. SARRERA

1.1.- Funtsa

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan Euskararen erabilera arautzen duenak, 6. artikuluan, Hizkuntza plangintza izeneko idaz-zatian, ezartzen du xede diren erakunde horiek behar diren planak prestatuko dituztela.

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio Departamentuko I. Hizkuntza Planak 2018 eta 2019 urteak bitartean burutuko diren jarduerak biltzen ditu. Plan bideragarria egin da, epe horretarako aurreikusi diren jarduerak burutzea ahalbidetzen duena.

Planaren helburu nagusia da herritarrei ematen zaien zerbitzuan ahalbidetzea euskaraz ere izatea. Horrek oraingo plan hau gainditzen du: epe ertain eta epe luzeko beste plan batzuk egitea eskatzen du, helburua urratsez urrats beteko bada.

Horregatik, orain lehenetsi dira herritar euskaldunei arreta zuzenean eskaintzen dieten unitate organikoak eta jarduera egingarri batzuk; beti ere, egoera soziolinguistikoa eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuta.

Dokumentua elkarrekin egin dute Euskarabideak eta departamentuko unitateetako langileek.

Uztailaren 22ko 8/2015 Foru Dekretua aldatu zuen abuztuaren 10eko 23/2015 Foru Dekretuak Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio Departamentuaren hurrengo egitura organikoa ezarri zuen:

Hona hemen Departamentuaren organo nagusiak:

Kontseilaritza

- Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia

- Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia

- Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusia

- Idazkaritza Tekniko Nagusia

Gainera, badira seik enpresa publiko Departamentuarekin harreman estua dutenak; hala, INTIAk eta Tuterako Nekazal-Elikadura Hiriak Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiarekin harremana daukate, GAN-NIKek eta NILSAk Ingurumena eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarekin eta NASUVINSAk, aldiz, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiarekin. Bukatzeko, erran Departamentuan TRACASako langileria ari dela lanean.

1.2.- Lege esparrua

Nafarroako hizkuntza politika egiteko orduan nagusi diren bi arauak ondokoak dira: 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa; eta 103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duena.

Euskarari buruzko Foru Legeak honako hau ezartzen du bere lehen artikuluan:

1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan.
2. Hauek dira Lege honen ezinbesteko helburuak:
 - a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
 - b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.
 - c) Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.
3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

Bestalde, 2.1 artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta ondorioz, herritar orok duela hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, euskararen erabilera arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, plan honen zenbait puntutan jasotzen den gisan.

3. artikulua funtsezko helburuak definitzen ditu.

1. Foru dekretu honen funtsezko helburuak honako hauek dira:
 - a) **Eremu euskaldunean**, ahalbidetzea bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daitezen lan-hizkuntza moduan Nafarroako administrazio

publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, bai eta herritarrei zerbitzua emateko ere.

- b) **Eremu mistoan**, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta beharrezkoak diren tresnak zehaztea ere ahalbidetzeko euskara eta gaztelania erabil daitezen herritarrei zerbitzua emateko; betiere, eremu horretako udalerrien errealitate soziolinguistikoarekin bat.
- c) **Eremu ez-euskaldunean**, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta hori lortzeko tresnak zehaztea ere, eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

- 2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, funtsezko helburua da euskararen erabilera ahalbidetzea herritarrei zerbitzua emateko.

Beste arau batzuk kontuan hartzekoak administrazio publikoetan neurriak hartzeko orduan ondokoak dira: Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuena, baita Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak eta Adituen Batzordeak idatzitako txostenak ere (2005eko, 2008ko, 2012ko eta 2016koak).

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, 7.2 artikuluan, ezartzen du estatu sinatzaileek alde batera utziko dituztela, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketanak. Egoera txarrean dauden hizkuntzek beren aldeko ekintzak behar dituztela sinetsirik, Europako Gutunak argi eta garbi dio eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez dela hartuko eremu zabalagoko hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko

herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

10. artikuluan “Administrazioko agintaritzak eta zerbitzu publikoak” izenekoan ondoko konpromisoak hartu dira:

3. puntua. Administrazioko agintariek edo horien kontura jarduten diren beste pertsona batzuek bermatzen dituzten zerbitzu publikoei dagokienez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta hori posiblea den neurrian, konpromiso hauek hartu dituzte Gutuna sinatzen duten aldeek:

- a) Zerbitzua ematerakoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla zaintzea
- b) Eskualde mailako hizkuntzetako edo hizkuntza gutxituetako hiztunei aukera ematea hizkuntza horietan eskabideak aurkezteko eta erantzunak jasotzeko

Nafarroako Gobernuak Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019) onetsi zuen 2017ko urtarrilaren 25ean.

Dokumentua oinarritzen da gobernua zurkaizten duen programa-akordioan hartutako konpromisoetan. Programa-akordioak nabarmentzen du behar dela plan bat zeharkakoa eta progresiboa, Nafarroako errealitate soziolinguistiko guztietara egokitua eta herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna errespetatuko dituen.

Plan Estrategiko honek euskararen eta euskarak Nafarroako gizartean behar duen tokiaren gaineko paradigma berri bat proposatzen du. Planaren erdigunean, hain zuzen ere, Nafarroako herritarrak daude, gizartea bere osotasunean. Planaren diagnostikoak erakutsi zuen zeintzuk diren herritarren premiak, euskarara iristeko zeintzuk gabezia dauden eta nola den presazkoa hizkuntzaren egoera hainbat esparrutan hobetzea. Horri erantzunez, eredu berri batean egituratzen da Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan. Eredua halabeharrez da planifikatua; lehentasunak adierazten ditu eta eskura dauden baliabideak kudeatzen ditu.

Gizarteari zerbitzuak emateko ardatzean, hirugarren ardatza zerbitzu publikoetan zentratzen da. Ardatzaren helburua da administrazio publikoek euskaraz zerbitzuak emateko duten gaitasuna hobetzea eta zerbitzu publikoetan euskaraz artatzeko eskaintza zabaltzea.

1.3.- Datu demografiko eta soziolinguistikoak

Nafarroako Estatistika Institutuaren datuen arabera, 2015ean, Nafarroak 640.476 biztanle zituen. 365.536 pertsona, %57, eremu mistoan bizi ziren, baina kontuan izan behar da eremu mistoa 2017an beste 43 herritara hedatu dela. Eremu ez-euskaldunean 216.406 pertsona bizi ziren, % 33,70. Eremu euskaldunean 58.534 pertsona bizi ziren, % 9,10.

Nafarroako biztanleriaren bilakaera (2001-2015), hizkuntza eremuen arabera

Eremua	2001		2005		2010		2015	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
Nafarroa	556.263	100	593.472	100	636.924	100	640.476	100
Euskalduna	55.847	10,03	56.828	9,50	59.257	9,30	58.534	9,10
Mistoa	299.382	53,82	321.908	54,24	347.148	54,50	365.536	57,00
Ez-euskalduna	201.034	36,14	214.736	36,18	230.519	36,10	216.406	33,70

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea

Nafarroako biztanleria adin taldeen eta generoaren arabera, 2015

Adina	Oсотara	%	Gizonezkoak	%	Emakumezkoak	%
0-14	100.731	15,73	51.554	16,22	49.177	15,24
15-29	95.440	14,90	48.500	15,26	46.940	14,55
30-44	149.817	23,39	77.013	24,23	72.804	22,57
45-59	138.363	21,60	70.391	22,14	67.972	21,07
60-74	94.568	14,77	46.215	14,54	48.353	14,99
≥ 75	61.557	9,61	24.212	7,62	37.345	11,58
TOTAL	640.476	100	317.885	100	322.591	100

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, 16 urtetik gorako herritarren artean egin zen 2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, %12,9 euskalduna da, %10,3-k badaki zerbait euskaraz baina ez da erosotasunez hitz egitera iristen eta %76,7k ez daki euskaraz.

Euskararen ezagutza tokiaren arabera askotarikoa da, ondoko koadroan ikus daitekeen gisan:

Nafarren hizkuntza gaitasunaren bilakaera eremuen arabera (2011-2016)

2016	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Euskaldunak	59,3	61,1	9,8	11,3	2,3	2,7	11,7	12,9
Euskaldun hartzaileak	12,6	13,4	9,6	12,0	3,1	6,8	7,5	10,3
Erdaldunak	28,1	25,5	80,6	76,8	94,6	90,5	80,8	76,7

Iturria: *Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, hazi egin da eskualde guztietan.

Euskaldunen ehuneko handiena 35 urtetik beherakoen artean dago, ondoko koadroan ikus daitekeen gisan:

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa

2016	≥65 (%)	50-64 (%)	35-49 (%)	25-34 (%)	16-24 (%)	Nafarroa (%)
Euskaldunak	8,3	9,5	11,7	18,8	25,8	12,9
Euskaldun hartzaileak	7,1	11,3	12,1	8,8	12,2	10,3
Erdaldunak	84,6	79,2	76,1	72,4	61,9	76,7

Iturria: *Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

16-24 urte bitarteko adin taldean handitu da gehien euskararen ezagutza. Talde honetan, eremu euskaldunean, portzentajea %56,7koa zen 1991n eta %89,6koa 2016an. Horrek esan nahi du hazkundea ehuneko 32,9 puntukoa izan zela. Eremu mistoan %7,1 zen 1991n eta %27,3, berriz, 2016an, hots, ehuneko 20,2 puntu.

2.- DIAGNOSTIKOA

Atal honetan, lau puntu aztertuko ditugu:

- Hasierako egoera: gaur egun Departamentuko plantillan hizkuntza eskakizuna ezarria duten plazak, hau da, plaza elebidunak.
- Langileen euskararen ezagutza, eskura ditugun datuak.
- Lehentasunezko unitateak definitu, hau da, herritarrarekin harreman zuzena dutenak eta zerbitzu zentraletako unitate organikoak.
- Departamentuaren komunikazio eta baliabideak.

2.1.- Abiapuntua

2018ko plantilla organikoaren arabera, 2017ko abenduaren 31ean, Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentuan, 609 lanpostu daude. Horietatik, bi lanpostuk 3. jakite-maila izeneko hizkuntza eskakizuna ezarria zuten (C1 maila edo EGAREN baliokidea, ahoz eta idatziz). Lanpostuok Idazkaritza Tekniko Nagusiko Herritarren Harrerako Ataleko administrari laguntzaileei dagozkie; bata Lekunberriko bulegoan (eremu euskaldunean) eta bestea Departamentuaren egoitza nagusiko erregistroan (eremu mistoan).

Ondoren, basozainen 8 lanposturi B2 mailako hizkuntza eskakizuna ezarri zaie. Bai eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko Toki Entitateetako Langileen Kudeaketa eta Aholkularitza Ataleko Aholkularitza Administratiboko Bulegoko burutzari ere, C1 mailakoa.

Gainera, beste 53 lanpostutan euskara merezimendutzat hartzen da; baina ez da ziur lanpostu horietan ari diren langileen gaitasuna herritarrak artatzeko adinekoa den.

Idazkaritza nagusiak	PLAZAK GUZTIRA		
	Plazak guztira	Euskera H.E.rekin	Plaza elebidunen %
Landa Garapena	220	0	0,00%
Ingurumena	261	8	3,01%
Toki Administrazioa	47	1	2,13%
Idazkaritza Tekniko Nagusia	81	2	2,30%
Osotara	609	11	1,81%

Kontuan hartzen badugu eremu euskaldunean bakarrik Departamentuko Lekunberriko bulegoko lanpostu batek duela herritarrak artatzeko hizkuntza eskakizuna (arestian aipatu bezala, beste lanpostua Iruñeko Gonzalez Tablas karrikako erregistroko bat da), hala nola, duela gutxi sortu diren 8 basozain lanpostu Basozainen Zerbitzuko Bidasoa, Aezkoa-Kintoa eta Sakana-Mendialdea aldeetan, oso proportzio eskasa da herritarren % 61,1 euskal hiztuna denean eta beste % 13,4 ia-euskalduna

Lanpostuak eremu euskaldunean guztira	Euskera H.E.rekin	%
44	5	11,36 %

Orain arte, herritarrari arreta euskaraz eman bazaio, langile euskaldunaren borondateari esker izan da, ez baitzen arreta elebiduna eskaintzen zuen egitura antolatuturik.

2.2.- Langileen euskararen ezagutza

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentuko langileen euskararen jakintza zein de zehaztasunez ez dakigu, baina erreferentzia gisa baliatu ditugu Euskarabideak azken hamar urteotan antolatutako prestakuntza jardueran parte hartu duten langileen datuak. Pentsatzekoa da euskaraz badakiten langileak gehiago direla, dela naturaltasunez ikasi dutelako dela ondoren ikasi dutelako beste entitate batzuetan, baina ez ditugu datu horiek.

Datu horiek gaiari buruzko hurbilketa gisa baino ez dira erabili; izan ere, diagnostikoaren unean 2018ko plantilla organikoa erabili da (2017ko abenduaren 31n), eta, bestetik, zenbait aldaketa izan dira. Bestalde, ikastaroetan lortutako maila aldatu egin daiteke, maila altuago edo baxuagoa izan daiteke, prestakuntzaren ondoren euskara erabili denaren arabera, eta gainera, zenbait pertsona erretiratuta egon daitezke.

Azken puntu bat da Departamentuaren aniztasuna; izan ere, Departamentua oso anitza da, eskumen eta gai askoren gaineko ardura dituen. Ardura tekniko horiek kudeatzeko, Departamentuak atal askotan bereizita dago. Atal horiek ez dira homogeneousak, bakarrik Basozainen Zerbitzua eta Idazkaritza Tekniko Nagusiko Herritarrak Artatzeko Ataleko administrari laguntzaileek dituzte antzeko profilak. Gainerakoak espezializazio handiko atal eta bulegoak dira. Hori dela eta, ezin dugu unitateen gaitasuna ezagutu, euskarazko arretarako edo zerbitzurako eskaerari erantzuteko.

Eskura ditugun datuen arabera, hau da Departamentuko langileek duten euskarazko ezagutza, jendaurreko unitate eta intereseko beste atla batzuk kontuan hartuta:

Departamentuko langileriaren euskarazko jakintza maila										
		Maila baxua			Maila ertaina			Goi maila		
Unitatea	Lanpostuak	Emak.	Giz.	%	Emak.	Giz..	%	Emak.	Giz..	%
Landa Garapena	220	16	7	10,5 %	5	2	3,2 %	11	6	8,2 %
Ingurumena	261	10	26	13,8 %	6	10	6,1 %	7	24	11,9 %
Basozainen Zerbitzua	122	2	20	18 %	2	6	6,5 %	6	21	22,1 %
Toki Administrazioa	47	3	1	8 %	1	0	2 %	5	0	10,6 %
Idazkaritza Teknikoa Nagusia	81	5	5	12 %	1	1	2,6 %	2	2	4,7 %
Informazioa eta Erregis. (eusk.)	7	1	0	14 %	0	0	0 %	2	0	28,6 %
Informazioa eta Erregis. (mistoa eta ez-eusk.)	25	2	4	24 %	1	0	4 %	1	1	8 %
Departamentua osotara	609	34	39	12 %	15	19	5,6 %	34	54	14,5 %

Euskararen jakintza hiru mailatan sailkatu da: maila baxua: A1, A2 eta B1; maila ertaina: B2 (maila aurreratua); goi maila: C1 (erabiltzaile independentea)

Aztertu dugun azken puntu bat da lanpostuen sailkapena hizkuntza eremuaren arabera. Hala, eremu euskaldunean ari diren bulego sarean, bi nagusiak dira (Irurtzun eta Elizondo) eta sei laguntzaileak (Doneztebe, Lesaka, Larrainzar, Lekunberri, Lakuntza eta Aribere). Aribekoa izan ezik (eremu mistoko Zangozakoaren mendekoa), gainerakoak Irurtzun eta Elizondokoaren mende daude, biak eremu euskaldunean. Langileen euskararen jakite-mailaren arloan, alde handiak daude; hala, Irurtzunen eta Elizondon jakite maila handia da Zangozan, aldiz, txikia da.

Departamentuko harrera eta erregistro gune zentralak bi dira, biak eremu mistoko Iruñean kokatuak; bata Gonzalez Tablas karrikan eta bestea Arrieta karrikan Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusian). Gonzalez Tablas karrikakoan euskarazko ezagutza maila %25ekoa da, eta bestean, langile batek zerbitzua euskaraz ematen du, nahiz eta bere lanpostuak hizkuntza eskakizunik ez duen.

Aipagarria da Basozainen Atalaren egoera; hala, basozainak banatuta dauden hamaika aldeetatik, hiru osorik eremu euskaldunean daude: Bidasoa, Sakana-

Mendialdea eta Aezkoa-Kintoa. Bada, basozainen artean, aipatutako hiru eremu horietan euskararen ezagutza maila Departamentuko batz bestekoaren oso gaineratik dago, izan ere, jakintza baxua %20koa baita eta ertain-altua, aldiz, %73koa.

2.3.- Lehentasunezko unitate organikoen identifikazioa

Foru dekretuaren 2. b) artikuluan zerbitzu zentralak definitzen dira: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik, herritar guztiendako arreta ematen dutenak, non dauden kokatutarik kontuan hartu gabe.

20. artikuluan, Herritarrekiko harremanak, 3., honela dio: Ahozko arretari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentralak neurriak bultzatuko dituzte herritarrek euskarazko arreta izan dezaten. Bestelako neurrien artean daude informazio guneak sortzea eta euskaraz dakiten langileekin ele biko zirkuituak sortzea.

Unitate organiko bat lehentasunezko zat zehazteko, kontuan hartu dira haien zerbitzuaren eta komunikazioen izaera. Horrela, orientazio gisara erabili dira lanpostu bat lehentasunez elebidun gisa hartzeko 103/2017 Foru Dekretuaren 25. artikulua adierazten dituen eginkizunak:

a) Herritarrei arreta orokor zuzena ematea telefonoguneetan, erregistro bulegoetan edo harreretan; bereziki, herritarren segurtasuneko zerbitzuetan eta larrialdi zerbitzuetan, eta babes zibileko eta larrialdietako zerbitzuetan.

b) Herritarrei zerbitzu edo prozedura administratiboei buruzko berriazko informazioa ematea, ahoz zein idatziz.

c) Herritarrei zuzendutako komunikazioak sortzea edo dokumentazioa oro har euskaraz kudeatzea.

d) Eremu euskalduneko herritarrei arreta ematea.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentralak dagokienez, ele biko zirkuitu batean sartuta egotea.

3. Ele biko lanpostuak zehaztuko dira, zein departamenturi atxikita dauden, hark egindako proposamenaren bidez eta Euskarabidearen alde aurreko aldeko txostenarekin, plantilla organikoa aldatzeko behar den foru dekretuan sar daitezten.

103/2017 Foru Dekretuaren 25. artikulua arabera Nafarroako Foru Administrazioaren ele biko lanpostuak identifikatzeko eta plaza horiek 3. artikuluan adierazitako helburuen arabera zehazteko, hurrengo unitate organikoak lehenetsi dira:

Kontseilaritza:

- Estatistika Atala-Lurraldearen eta Jasangarritasunaren gaineko Datuen Ekosistemaren Behatokia.

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia:

- Nekazaritza Zerbitzuko Etekinetarako Laguntzen Atala (PAC izeneko laguntzen ardura dute).
- Erakunde Ordaintzailearen Zerbitzuko Ikuskapen Atala (kontsulta asko izaten dituzte).

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolakuntzako Zuzendaritza Nagusia:

- Basozainen Zerbitzua (basozain guztien ardura du, bere menpeko Bidasoa, Aezkoa-Kintoa eta Sakana-Mendialdea eskualdeak eremu euskaldunean daude).
- Lurralde eta Ingurumen Jasangarritasunaren Arloko Berrikuntza eta Ezagutza Zerbitzua:
 - o Jasangarritasunaren, Ingurumen Hezkuntzaren eta Partaidetza Publikoaren Atala (jasangarritasunaz, eta ingurumeneko hezkuntzaz arduratzen da. Gainera, herritarren partaidetzaz ere arduratzen da, Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza nagusiaren ekimen estrategikoetan).
 - o Toki Agenden eta Lankidetzarako Bulegoa (Ingurumeneko Facebook-ez eta NELSeko idazkaritzaz eta Agenda 21-ez arduratzen da; azken hau dela eta, Nafarroa osoko udalekin harremana dauka).

- Ekonomia Zirkular eta Uraren Zerbitzua:
 - o Ekonomia Zirkular eta Uraren Zerbitzuko Laguntza Administratiboko Bulegoa (hondakinez, ur eta airearen kalitatea neurtzeko sareaz atmosferara egiten diren jaurtiketez ur-azpian gera daitezkeen lurraldeez, ingurumeneko baimenez, kutsaduraren prebentzioaz, ibaiak lehengoratzear eta arrantzaren kudeaketaz).
- Natur Ingurumenaren Zerbitzua:
 - o Natur Ingurumenaren Zerbitzuko Administrazio Laguntzako Bulegoa (arrantza eta ehiza baimenaz arduratzen dira).
 - o Eskualde Atlantiarreko Kudeaketaren Atala (lana batik bat eremu euskaldunean egiten du).
 - o Natur Ingurumenaren Zerbitzuko Eskualde Piriniarreko Kudeaketaren Atala (lana maiz eremu euskaldunean egiten du).
- Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zerbitzu Juridikoa (herritar asko galdezka artatzen dute):
 - o Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zerbitzu Juridikoko Ingurumenaren Araubide Juridikoko Atala.
- Lurralde eta Paisaiaren Zerbitzua (herritar asko galdezka artatzen dute):
 - o Udalen Hirigintzako Planteamendurako Atala.
 - o Ingurumen Eraginaren eta Paisaiaren Ataleko Ingurumen Ebaluazioaren Bulegoa.

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusia:

- Toki Antolamendurako Zerbitzua:
 - o Toki Administrazioko Aholkularitzarako eta Langileriaren Kudeaketa Administratiborako Ataleko Aholkularitza Administratiborako Bulegoa (Zuzendaritza Nagusiaren informazio gunea da).

- Kudeaketa eta Lankidetzaren Ekonomikorako Zerbitzua:

- Plangintzaren eta Azterlan Ekonomikoen Atala (informazio eskaera anitz jasotzen du).
- Aurrekontu eta Kontabilitateari Buruzko Aholkularitzarako Atala (informazio eskaera anitz jasotzen du).

- Toki Azpiegituren Zerbitzua:

- Toki Azpiegituren eta Obren Azterketa, Plangintza eta Aholkularitzarako Atala.

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia:

- Idazkaritza Tekniko Nagusiko Langileriaren eta Herritarren Arretako Atala (informazio gune eta erregistroak menpean ditu).

Atal honetan guztian aipatutako unitateetan plaza elebidunak definitu dira, euskararen balorazio maila merezimenduan gainerako plazetan, baita ere beharreko neurriak zerbitzua bi hizkuntzetan emateko xedez.

2.4.- Komunikazio eta baliabideen azterketa

Administrazioak herritarrekin komunikatzeko eta informatzeko dituen baliabideak mailaka garatuko dira *Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan Euskararen erabilera arautu zuen 103/2017 Foru Dekretuko II. Tituluko irizpideek xedatzen dutenaren arabera.*

Izan ere, kontuan eduki behar dugu oso ugariak direla administrazioak herritarrekin komunikatzeko eta informatzeko dituen baliabideak, bi multzo nagusitan bana daitezkeenak: ahozko eta idatzizkoak. I. Hizkuntza Plan honetan, idatzizko komunikazioari lehentasuna emanen zaio.

Horrela, azterketa egiteko, herritarrei begirako euskarrien zerrenda egin da. Datu bilketa egitean, ordea, antzeman da Departamentuan idatzizko komunikazio bolumen handia dagoela eta ez dagoela dokumentazioaren inbentario zentralizaturik. Horrek zaildu egiten du azterketa egitea.

Horri gehitu behar gero eta gehiago komunikatzen dela sare sozialen bidez, eta bertan, gainera, zuzeneko interakzioan aritzen dela herritarrarekin. Horiek horrela, bi jarduera hauek egingen dira:

1. Herritarrari begirako dokumentazioaren inbentario zentralizatu bat egiteari ekitea, erabiltzen den dokumentazioa aztertuta.
2. I. Hizkuntza Planerako honako euskarri hauen azterketa xehea egitea eta horietan eragitea, horiek herritarrengan irismen handiena dutenak direlakoan:

Hauekin batera, herritarrak hartzeko espazio fisikoetako hizkuntza-paisaiaren diagnostikoa egin behar da. Horretarako Departamentuak espazio horiek zeintzuk ziren identifikatu beharko du, eta bertako langileen bidez bertako errotulu eta abarren hizkuntza egoera zein den jaso.

3.- MISIOA ETA HELBURUAK

3.1.- Misioa

Herritarrendako zerbitzuetan ele biko erantzuna sustatzea, ahozkoa zein idatzizkoa, lehentasunezko unitateetan, planifikaturiko eta sistematizaturiko ekintza bat finkatuz eta euskara zerbitzu publikoaren berariazko elementu gisa balorizatuz.

3.2.- Helburuak

103/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen helburuek, beteko badira, epe luzerako jarduera behar dute. Progresiboki aurrera eginez joateko 6 helburu proposatzen dira epe ertainean. Horiek gauzatzeko, Plan honetan aurreikusitako hiru urteko indarraldian zehar (2021ko abenduaren 31ra arteko epea) egin beharreko ekintzak zehazten dira.

Gainera, nahitaezkoa da kontuan izatea euskararen egoeraren diagnostikoa (barne hartuz komunikazioan, prestakuntzan eta itzulpenean dauden premien identifikazioa eta haien balioespen ekonomikoa) 2019an zehar osatuz joanen dela.

3.2.1.- Beharrezko hizkuntza nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan

Helburu hau betetzeko ondoko lanak gauzatuko dira:

- a) Aztertzea, lehentasunezko unitateei dagokienez, eginkizunen arabera, zein lanpostutan den beharrezkoa edo komenigarria bi hizkuntzak jakitea. Lehentasunezko unitate izateak ez du halaberrez esan nahi hizkuntza nahitaezkotasuna ezarriko dela. Lehentasun horrek neurri multzo bat eskatzen du, nahitaezkoak zerbitzua bi hizkuntzetan bermatzeko; hizkuntza baldintza ezartzea neurri horietako bat da.
- b) Euskararen ezagutza maila egokia ezartzea, 103/2017 Foru Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoa aintzat hartuz.
- c) Lanpostuen arabera, ezartzea nahitaezkotasuna zenbat plazek izanen duten.
- d) Ezartzea zein modutan hornituko diren nahitaezkotasuna duten plazak eskatutako euskara maila duten langileekin. Ondorio horietarako, kontuan izanen da betiere 103/2007 Foru Dekretuaren 24. artikuluan eta xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Euskararen balorazioa merezimendu gisa

Euskararen jakitea merezimendu gisa baloratzeari dagokionez, kontuan izan beharko da 103/2007 Foru Dekretuaren 27., 31., 35. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Halaber, kontuan izanen da dekretu beraren laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Kasu bakoitzaren arabera, ehuneko handiagoak proposatzen ahalko dira. Edozein kasutan, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren justifikazio txostena beharko da.

Euskara eremu ez euskaldunean baloratzeari dagokionez (35. artikulua), kontuan izanik Arartekoaren gomendioa eta 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoa azaldutako datuak, artikulua horretan aurreikusitako gehieneko puntuazioa emanen da oposizio-lehiaketa bidez sartzeko deialdietan eta merezimendu

lehiaketa bidez lanpostuak betetzeko orduan. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren justifikazio txostena beharko da.

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Lehentasunezko unitateen identifikazioa	Departamentua eta Euskarabidea
Departamentuarendako idaztea plantilla organikoan sartu beharreko plaza elebidunen hizkuntza eskakizunen proposamena.	Euskarabidea
Proposamena aztertu eta beharrezko egokitzapenak egin ondotik, erabaki behar da zein plazetan sartuko diren hizkuntza eskakizunak.	Departamentua eta Euskarabidea
Hizkuntza eskakizuna izanen duten plazei buruzko txosten teknikoak idaztea	Euskarabidea
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onespena ematea	Departamentua
Txosten teknikoa igortzea Funtzio Publikora	Departamentua
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoko Negoziazio Mahaian (103/2017 Foru Dekretuko xedapen gehigarrietan zazpigarrena)	Funtzio Publikoa, Departamentua, Euskarabidea eta sindikatuak
Foru Dekretuaren bitartez plantilla organikoan sartzea egindako aldaketak	Funtzio Publikoa

3.2.2.- Euskarazko prestakuntza eskaintzea **Departamentuko lehentasunezko unitate organikoiei** **esleituriko langileei**

Behin Departamentuak egokitzen dituen plazetan hizkuntza nahitaezotasuna ezarri duenean, Euskarabideko Prestakuntza Atalari jakinaraziko dio zein diren euskarazko irakaskuntza premiak eta zein gaitasun behar den herritarrei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko.

Langileen euskarazko prestakuntza hizkuntzaren ezaguera mailaren arabera antolatuko da.

Euskararik ez dakiten langileek edo euskara maila apala dutenek egin ahalko dituzte prestakuntza ikastaro hauek. Euskara maila ertain edo altua dutenek euskaraz gaitzeko ikastaroak egiten ahalko dituzte. Hots, Departamentuko langileek parte hartzen ahalko dute Euskarabideak antolaturiko ikastaroetan, bai ikastaro arruntetan, bai berariazkoetan. Lehentasuna izanen dute 2.3 puntuan zehazturiko lehentasunezko unitateetako langileek. Hizkuntza eskakizuna ezarri duen plaza betetzen duen langileak, ez badu eskakizun hori egiaztatuta, lehentasuna izanen du ikastaroetarako zerrendetan eta bere hasierako mailaren arabera ezarritako plan pertsonalari jarraitu beharko dio, kalkulatu zaizkion orduekin.

Gainera, Departamentuak, Euskarabidearekin batera, gaitze espezializatuko ikastaroak antolatzen ahalko ditu, lanpostuen komunikazio premiei erantzuteko.

Prozedura

Lehen helburua da langileek duten euskara maila ezagutzea. Horretarako, mailaketa proba bat eta/edo elkarrizketa egingen dute.

Aurreko puntuko emaitzetatik abiatuta, banakako planak prestatuko dira langile bakoitzarendako. Plan horiek deskribatuko dute langilearen plazak duen euskara eskakizuna eskuratzeko egin beharreko prozesua. Laneko denboraren kargurako prestakuntza prozesuetan parte hartuko duten pertsonak konpromisoa hartzen dute dagokien hizkuntza maila adierazitako epean betetzeko. Departamentuak, berriz, plana gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak utziko ditu. Asistentzia faltak bere zuzendaritza nagusian justifikatu beharko ditu.

Plan bakoitzaren jarraipena egingen da, eta azkenean prozesua eta emaitza ebaluatuko dira. Ebaluazioak zenbait fase izanen ditu: urtero txosten bat egingen da, bertan adieraziz zein diren aldi horretarako zehazturiko helburuak;

planifikazioaren erdian helburuen betetze maila eta hartu beharreko neurriak jasoko dira; eta prozesuaren bukaeran azken txosten bat eginen da, azken ebaluazioa eta erdietsitako emaitzak jasotzeko.

Prestakuntza: ordu kopurua, ikastaroen eskaintza, lehentasunak...

Euskararik ez dakiten langileek edo euskara maila apala dutenek ikastaro arruntetan egin ahalko dute prestakuntza. Plan pertsonalak prestatuko dira, kalkulatzeko beharrezko hizkuntza eskakizuna eskuratzeko behar den ordu kopurua, abiapuntu gisa hartuz norberaren maila. Kalkulu hori egiteko ondoko taula erabiliko da:

Mailak	A1	A2	B1	B2	C1
Eskola-orduak	240	240	240	360	360
Norberaren lana	50	50	75	100	125
Orduak, guztira	290	290	315	460	485

Eskainiko diren ikastaroak helburuak erdiesteko behar den prestakuntzara eta eskura diren baliabideetara egokituko dira.

Langile bakoitzak gauzatzen duen lanean diren beharrian komunikatiboen arabera planteatuko da zein bide behar den eginkizun horiek euskaraz betetzeko behar den gaitasuna erdiesteko. Azterketa komunikatiboak markatuko du zein norabide jarraitu behar den egokitzeko zehazturiko hizkuntza eskakizunera eta proposatzeko ordu kopuru egokia. Horretarako, langileak gaitzeko egokiak diren kontsultarako tresna eta baliabideak eskainiko dira.

Aurreko guztiaren osagarri, kontsulta eta zuzenketa zerbitzu bat zehaztuko da, eguneroko lanean sor daitezkeen zalantzak konpontzeko.

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Hizkuntza eskakizunen behin betiko proposamena igortzea Euskarabideko Prestakuntza Atalera	Departamentua
Euskarabideko Prestakuntza Atalari eskatzea diseina dezala ikaskuntza eta prestakuntza plan bat	Departamentua
Hizkuntza eskakizuna duten langileen komunikazio premiak aztertzea eta ikaskuntza eta prestakuntza plan bat egitea	Euskarabideko Prestakuntza Atala
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan baterako proposamena aurkeztea	Euskarabideko Prestakuntza Atala
Prestakuntza plana egokitzea inplikaturiko pertsona bakoitzaren premietara	Departamentua
Plana onestea eta langileak prestatzeko prozesuari hasiera ematea.	Departamentua
Ikaskuntza eta prestakuntza egitea	Euskarabideko Prestakuntza Atala

3.2.3.- Beharrezko neurriak hartzea euskaraz artatuak izan nahi duten pertsonak hala izan daitezzen

Herritarrei eskainitako ahozko zein idatzizko arreta 103/2017 Foru Dekretuko 9., 13. eta 17. artikuluek arautuko dute. Horiek erreferentzia egiten diote eskualde desberdinei. 20. artikulua erreferentzia egiten die zerbitzu zentrali.

Herritarrendako arreta protokolo bat prestatuko da, erreferentziazkoa izanen dena zerbitzu hori emateko.

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Herritarrei ele biko erantzuna emateko hizkuntza irizpideen gida bat idaztea (Euskarabidea).	Euskarabidea
Jarduketa protokolo bat definitzea herritarrei ele biko erantzuna emateko orduan hizkuntza irizpideen gida aplikatzeko (Departamentua).	Departamentu a
Gida langileen artean nola hedatu behar den erabakitzea	Departamentu a

3.2.4.- Herritarrei ele biko informazio idatzia eskaintzea (digitala eta paperekoa).

Helburu hori, era berean, bitan banatzen da:

1. Informazioa eta baliabide idatziak (digitalak zein paperezkoak) gaztelaniaz zein euskaraz eskaintzea, ahalik eta aldiberekotasun handienarekin.
2. Idatzizko izapide eta harremanei (digitalak zein paperezkoak) dagokienez, zerbitzu egokia ematea.

Departamentuak agiri idatzien sailkapen bat egingen du (laburbilduma bat, zeinetan bilduko dituen agiri mota eta multzo nagusiak, ez inbentario xehakatu bat):

- Herritarrei zuzentzen zaizkien agiriak:
- Herritarrek jasotzen dituzten agiriak.
- Barne erabilerako agiriak.

Aztertuko da baliabideak egokiak diren helburua betetzeko eta diren gabeziak eta hutsunean identifikatuko dira.

Jarraian, herritarrengan eragin handiena duten agiriak lehenetsiko dira. Nolanahi ere, gaur egun duten garrantziagatik, lehentasunezkoak izanen dira webguneak, izapidatze elektronikoa eta sare sozialak.

Herritarrengan eragin handiena izan dezaketen baliabide idatziei dagokienez, ondoko lan ildoak aurreikusten dira:

- Ereduen bateratzea eta sinplifikatzea eta erabilera sustatzea.
- Euskarri atsegin erabilerraz eta argiak diseinatzea.
- Itzulpena.
- Zirkuituak ezartzea agiri mota batzuentzako.

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Koordinazioaz arduratuko diren pertsonak eta/edo unitateak izendatzea, itzulpen premiei eta agiri idatzien azterketari dagokienez (Departamentu guztian, edo zuzendaritza nagusika).	Departamentua
Gabeziak eta hutsuneak identifikatzea idatzizko baliabide eta izapideei dagokienez, eta lehentasunak ezartzea.	Departamentua eta Euskarabidea
Koordinazioa navarra.es atariko unitate arduradunarekin (eta, kasua bada, Itzulpen Atalarekin).	Departamentua eta Komunikazio Zerbitzua (eta Itzulpen Atala)
Lehentasunak ezartzea navarra.es atarian ostatatuak ez dauden webguneei dagokienez, ele bikoak eta/edo simetrikoak izateko bidean para daitezten (gaur eguneko egoera aintzat harturik, nahitaezkoak lirateke mota honetako jarduerak: egitura informatikoa egokitzea, eduki orokorrak itzultzea, berariazko edukiak itzultzea...).	Departamentua eta Itzulpen Atala
Navarra.es ataritik kanpo ostatatuko diren webguneendako, hasieratik aurreikustea zein baldintza bete beharko duten ele bikoak eta simetrikoak izan daitezten	Departamentua
Lehentasunak ezartzea, Departamentuko aplikazioei (bereziki herritarrei zuzenduei) dagokienez, ele bikoak izan daitezten.	Departamentua eta Itzulpen Atala
Aplikazio berriendako, hasieratik, aurreikustea zein baldintza behar diren ele bikoak eta simetrikoak izan daitezten.	Departamentua
Inprimaki eta formularioak gaztelaniaz zein euskaraz eskaintzea (bai digitalak eta bai paperezkoak): ereduak bateratzea, diseinuak aurreikustea eta itzultzea.	Departamentua eta Itzulpen Atala
Prozedura bat ezartzea izapidatze fitxak euskaraz zein gaztelaniaz egunera daitezten.	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala.
Gaztelaniaz zein euskaraz argitaratzea izapidatze fitxa guztiak (ezarritako prozedurari jarraikiz)	Departamentua eta Komunikazio Zerbitzua (eta Itzulpen Atala)
Gardentasun atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea, euskara ere kontuan harturik (prozedura arrunta departamentu guztiendako)	Gardentasunaren ataria eta Itzulpen Atala
Euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzea (aldi berean) departamentu guztiendako ezarriko den prozedura komunean adierazitako agiriak.	Departamentua eta Gardentasun Ataria
Lege proiektuak izapidetzeko prozeduran aurreikustea itzulpenaren fasea eta itzultzeko beharrezko astia, kontuan izanik lege proiektuak euskaraz eta gaztelaniaz igorri behar direla Parlamentura.	Departamentuko Idazkaritza Teknikoa, Itzulpen Atala eta Foru Erakundeekiko Prozeduren Kudeaketarako Atala

Itzulpenen kanpo kontratazioari buruzko aholkularitza	Itzulpen Atala
Itzulpen eskabideak egiteko jarraibideak prestatzea eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Atala
Beste batzuk (Departamentuak proposatzen dituenak)	

3.2.5.- Errotulazioa eta informazio elementuak ele bitan, herritarrak artatzeko gune fisikoetan (bulegoak, harreraguneak...): hizkuntza paisaia

Gauzatuko da 103/2017 Foru Dekretuaren 10., 11., 14. eta 18. artikuluetan (artikulu horiek definitzen dute erabilera eskualdeen arabera) eta 21. artikuluan (Foru Komunitatearen Administrazioako zerbitzu zentralak) xedaturikoaren arabera.

Errotulazioari eta unitateen informazio elementuei buruzko datuak lehentasunezko unitateetatik hasita bilduko dira. Behin azterketa hori egindakoan, bidezko neurriak hartuko dira, 103/2017 Foru Dekretuak xedaturikoari jarraikiz.

Halaber, ele biko postuak mahai gaineko kartel, pin edo antzekoen bidez identifikatuko dira.

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Fitxa bat sortzea jarduketa tokiak zerrendatzeko (bulegoak, arreta guneak...)	Euskarabidea
Aurreko fitxa osatzea jarduketa tokien zerrendarekin (bulegoak, arreta guneak...)	Departamentua
Fitxa bat sortzea jarduketa toki bakoitzeko hizkuntza pasaia diagnostikatzeko (bulegoak, arreta guneak...)	Euskarabidea
Toki bakoitzeko diagnostikoa osatzea, unitate bakoitzeko langileen bidez	Departamentua
Fitxak Euskarabideko langile teknikoei igortzea	Departamentua
Fitxak aztertu ondotik, aldatu behar diren elementuen proposamena egitea	Euskarabidea
Proposamena aztertu ondotik, behin betiko onespena ematea	Departamentua
Itzulpen Atalera igortzea euskaratu beharreko elementuak	Departamentua
Beharko diren euskarri berriak enkargatzea	Departamentua
Elementu berriak ezartzea	Departamentua
Lanpostu eta/edo langileen identifikazioa diseinatzea mahai gaineko kartelen, pinen, sinadura digitalen eta bestelakoen bidez	Euskarabidea

Lanpostuak eta/edo langileak identifikatzea mahai gaineko kartelen, pinen, sinadura digitalen eta bestelakoen bidez	Departamentua
---	---------------

3.2.6.- Zerbitzu publikoak esleitzeko orduan, hizkuntza irizpideak ezartzea

Departamentuak zerbitzuak emateko eginen dituen kontratuetako baldintza-agirietan mailakako klausulak sartuko dira euskararen presentzia eta erabilera nahikoa segurtatzeko hizkuntzak erabiltzen dituzten jardueretan, erabiltzaileek horietara ele bitan jotzen ahalko dutela bermatuz.

Kontratazio bidez ematen diren zerbitzuek Departamentuaren beraren zerbitzuetarako ezarritako hizkuntza irizpide berak beteko dituzte.

4.-ANTOLAMENDUA ETA JARRAIPENA

4.1.- Planaren antolaketa egitura

Gobernu Kontseilua:

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak bere egitura organikoan du Gobernu Kontseilua, zeina batzorde betearazle gisa arituko den Hizkuntza Planen alorrean.

Gobernu Kontseiluak ahalmen hauek ditu:

- a) Urtero, erakunde autonomoaren aurrekonturako aurreproiektuaren proposamena onestea.
- b) Urteko kudeaketa plana eta prestatzen diren urteko txostenak onestea.
- c) Plan estrategikoak onestea, Kontseiluak ezarritako aldizkakotasunarekin.
- d) Erakunde autonomoaren zuzendaritza funtzioak kontrolatzea eta gainbegiratzea.
- e) Nafarroako Gobernuko departamentuetan aplikatuko den hizkuntza politikaren arau bidezko garapena koordinatzea.

Osaera:

- a) Kontseiluburua: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilaria.
- b) Kontseiluburuordea: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari-kudeatzailea.
- c) Bokalak: Departamentu bakoitzaren ordezkari arituko den pertsona bat, kasuan kasuko departamentuko kontseilariak zuzendari nagusien

edo, erakunde autonomoi dagokienez, zuzendari-kudeatzaileen artean izendatua.

d) Idazkaria: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

Departamentuarterko batzordea.

Departamentuarterko batzorde tekniko bat eratuko da. Batzorde horren xedea da hizkuntza politikaren zeharkakotasun printzipioa gauzatzea izanen da. Batzorde horretan parte hartuko dute, batetik, departamentu bakoitzeko koordinatzaileek, eta, bestetik, Euskarabideko teknikariek. Hauxe egingen dute: jarduketan ebaluazioa, jarduketa irizpide komunak ezartzea, jardunbide egokiak trukitzea, etab.


Departamentuko lantaldea:

Planaren antolaketa eta jarraipen-egiturak giza baliabide hauek ditu:

- Zuzendaritza Nagusien eta Entitate Autonomiadunen pertsona bana. Horietako bat Departamentu osoko euskara koordinatzailea izango da, behar diren egitura organiko guztietan hizkuntza plana bultzatu, lideratu eta koordinatuko duena.
- Euskarabidearen pertsonala teknikoak.

Aholkularitza teknikoaren laguntza izanen dugu.

DEPARTAMENTUEKIKO HARREMAN EREDUA HIZKUNTZA-PLANETARAKO



Departamentuko euskara koordinatzailea

Departamentuak pertsona bat izendatu du, Departamentu osoko koordinatzaile.

Hauexek dira dituen funtzioak:

- Hizkuntza Planean biltzen diren ekintzak lideratzea, eta koordinatzea Departamentuko egituren artean. Euskarabideko teknikarien lankidetzaz izanen du.
- Ekimen eta behar berriak identifikatzea.
- Jarraipena eta kontrola.
- Departamentuari informazioa ematea Euskararen I. Plan Estrategikoaren gainean.

Euskarabideko pertsonal teknikoa

Euskarabideak izendatutako teknikariek Departamentuaren Hizkuntza Planaren ekintzak bultzatzeko eta koordinatzeko ardura hartuko dute.

Hauexek dira bere funtzioak:

- Hizkuntza Planaren ekintzen burutzean parte hartzea.
- Departamentuko Euskara koordinatzaileari nahiz Departamentuko ordezkariari laguntza eta aholkularitza eskaintzea, hizkuntza-politikarekin zerikusirik duten gai guztietan.
- Beste departamentuetako arduradunekin koordinatzea.

4.2.- Jarduketan balorazio ekonomikoa

Behin diagnostikoa egin dela eta aski informazio jaso ondoren Plana gauzatzeko eta langileen prestakuntza premiei zein itzulpenari eta bestelakoei Departamentuan erantzuteko aplikatu behar diren neurrien gainean, neurri horien kostuaren balorazio ekonomikoa egingen da, 2020ko aurrekontuetan eta ondoko ekitaldietakoetan berariazko partidak ezartzeko.

4.3.- Ebaluazioa eta jarraipena

Etengabeko ebaluazioa egingen da. Horretarako, behin diagnostikoa egin dela Departamentuko euskararen egoeraren gainean, eta prestakuntza, itzulpen eta baliabideen egokitzapen premiak atzeman direnean, adierazleak ezarriko dira, halako moduz non urtean zehar eta proiektuaren bukaeran ebaluazioa egiten ahalko den. Adierazleekin batera, datuak jasotzeko modua zein neurketa egiteko arduradunak zehaztuko dira.

Hauxe da horretarako jarraitu beharreko prozesua:

- Urte hasieran ebaluazioa egiteko modua definituko da (zer ebaluatuko den, nork egingen duen, non jasoko diren datuak...).
- Zenbait unetan ekintzen eta Hizkuntza Planaren betetze maila neurtuko dira. Ebaluazio partziala da.
- Bukaeran, azken ebaluazioa egingen da eta emaitzak baliatuko dira ondoko urteko hizkuntza a diseinatzeko.
- Hilero, gauzatutako ekintzen jarraipena egingen da eta ondoko hilekoak planifikatuko dira.

Plana planifikatzeko bilerak

Plana behar bezala gauzaten ari dela eta lanaren sistematizazioa bermatzeko, Planaren egitura osatzen duten organoen lan eta koordinazio bileren urteko plana ezarriko da.

Jarraipen txostenak

Urtean behin jarraipen txosten bat egingen da. Bertan zehaztuko da zein den ekintzarako hizkuntza Planaren betetze maila, egindako lanaren gainean kontu emateko, bai barrura begira (Euskarabideko Gobernu Kontseilua), bai kanpora begira (Euskararen Nafar Kontseilua) zein oro har herritarrei begira (Gardentasunaren Ataria).

Ebaluazioa

Prozesuaren eta erdietsitako emaitzen ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingen da Planaren hiru urteko indarraldiaren bukaeran.